

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onestea plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga bereziaren araupetzea

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularrerako apirilaren 8ko 7/2022 Legeak berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia ekarri du ordenamendu fiskalera.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabaki du aldaketa egitea Ekonomia Itunean, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezi hori adosteko, besteak beste.

Erabaki horren ondorioz Ekonomia Ituna aldatu egin da apirilaren 3ko 9/2023 Legearen bidez.

Ekonomia Itunaren 33. artikulua arabera, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia itundutako tributua da, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura eraentzeko.

Aurrekoa dela eta, zerga premiazko araugintzako dekretu hau eman beharra dago, zerga berri hori Arabako Lurralde Historikoaren tributu ordenamenduan txertatzeko, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezarritako epe ondorio berberekin.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horrenbestez, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Izaera eta xedea

1. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia zeharkako tributua da, behin erabiltzekoak diren ontzi plastikodunei ezartzen zaiena, bai hutsik daudenei bai salgaiak barruan edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko edo aurkezteko erabiltzen direnei.

2. Zergaren helburua da berrerabili ezin diren plastikozko ontzien hondakinen sorreraren prebentzioa sustatzea eta, halaber, plastikozko hondakinen birziklapena sustatzea, material horren zirkulartasuna lortzen laguntzeko.

2. artikulua. Eremu objektiboa

1. Hauek sartzen dira zerga honen eremu objektiboan:

a) Behin erabiltzekoak diren ontzi plastikodunak.

Ondorio horietarako, ontziak dira salgaiak barruan edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko diseinatutako artikuluko guztiak, barnean hartuta bai Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularrerako apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikuluko m) letran definitutakoak, bai definizio horretan egokitzen ez den beste edozein, baldin

eta funtzio berak betetzen baditu eta modu berean erabil badaiteke. Salbuespen dira produktu baten parte diren artikulua, beharrezkoak badira produktu hori barruan edukitzeko, eusteko edo babesteko bere bizitza baliagarri osoan, eta produktuaren elementu guztiak batera erabili, kontsumitu edo ezabatzeak badira.

Ontziak ezin direla berrerabili ulertuko da ez badituzte berariaz sortu, diseinatu eta merkaturatu euren bizi zikloan zehar hainbat zirkuitu edo bira egin ditzaten edo diseinatu zirenean esleitu zitzaizen xede bererako behin eta berriz bete edo erabil daitezen.

b) Plastikozko produktu erdilanduak, a) letran aipatzen diren ontziak lortzeko erabiltzen direnak; esaterako, aurreformak edo termoplastikozko xaflak.

c) Berrerabili ezin diren ontziak ixtea, merkaturatzea edo aurkeztea xede duten produktu plastikodunak.

2. Aurreko apartatuaren ondorioetarako, plastikoa da Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularerako apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikuluko u) letran definitutako materiala.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren produktu plastikodunak, material mota gehiagoz osatuta badaude, daukaten plastiko kopuruaren arabera kargatuko dira.

3. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

1. Ekonomia Itunaren 33 bis artikuluan xedatutakoaren esparruan, zerga premiazko araugintzako dekretu honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera exijituko da zerga.

2. Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko barne ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoa aplikatzea, Espainiako Konstituzioaren 96. artikuluekin bat etorritik.

4. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena

1. Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga ordainaraztea honako arau hauei jarraikiz:

Lehenengoa. Zergaren eremu objektiboko produktuak fabrikatzen diren kasuetan, jarduera hori Arabako Lurralde Historikoan kokatutako establezimenduetan egiten denean.

Bigarrena. Zergaren eremu objektiboko produktuak Europar Batasunaren barruan eskuratzen diren kasuetan, zergadunaren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan dagoenean. Europar Batasunaren barruko eskurapenak establezimendurik gabeko zergadun batek egiten baditu, haren ordezkariaren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan dagoenean.

Hirugarrena. Zergaren xedeko produktuen sartze irregularreko kasuetan, sartze irregularra egiaztatzen den unean produktuak Arabako Lurralde Historikoan daudenean.

2. Arabako Foru Aldundiko organoek egingo dituzte zergaren egiaztapenak eta ikerketak, aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera hura denean eskuduna zerga ordainarazteko. Horrek ez du inola ere galaraziko zerga administrazioen arteko elkarlana.

5. artikulua. Definizioak

1. Zerga honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira definizio hauek:

a) «Europar Batasunaren barruko eskurapena»: Eskuratzailarentzat zergaren aplikazio lurraldera, salbu eta Kanarietara, Ceutara eta Melillara, Europar Batasuneko beste estatu batetik eskualdatzailak, eskuratzailak berak nahiz hirugarren batek (aurreko bietako baten izenean eta kontura) bidaltzen edo garraiatzen dituen zergaren xedeko produktuak baliatzeko ahala lortzea.

Europar Batasunaren barruko eskurapenekin parekatutako eragiketatzat joko da, halaber, zergaren xedeko ontzien jabeak ontzi horiek hartzea zergaren aplikazio lurraldean (salbu eta Kanarietan, Ceutan eta Melillan), jabeak berak beste estatu kide batetik bidalita.

b) «Fabrikazioa»: Zerga honen pean dauden produktuak egitea.

Hala ere, ez da fabrikaziotzat joko ontziak egitea baldin eta horretarako zerga premiazko araugintzako dekretu honen 2. artikuluko b) eta c) letretan aipatutako zergapeko produktuak bakarrik erabiltzen badira, edo produktu horiek eta plastikorik gabeko beste batzuk erabiltzen badira.

Era berean fabrikaziotzat joko da ontziei plastikozko beste elementu batzuk gehitzea, baldin eta, elementu horiek berez eta banan hartuta zergaren eremu objektibokoak ez izan arren, ontziei gehitu eta gero haien parte bihurtzen badira.

c) «Inportazioa»: eragiketa hauek joko dira inportaziotzat:

1. Zergaren aplikazio lurraldera (salbu eta Ceutara eta Melillara) zergaren xedeko produktuek ekartzea Europar Batasuneko aduana lurraldeaz kanpoko lurraldeetatik, baldin eta horrek bide ematen badio produktuen praktika libreko tramitazioari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluen arabera (erregelamendu horrek Europar Batasuneko aduana kodea ezartzen du).

2. Zergaren xedeko produktuak Kanarietara sartzea Europar Batasuneko aduana lurraldearen barruan baina zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dauden lurraldeetatik, baldin eta sarrera horrek bide eman badio praktika libreko tramitazioari, zergaren xedeko produktuak Europar Batasuneko aduana lurraldeaz kanpoko lurraldeetatik ekarritakoak direnean.

3. Zergaren xedeko produktuak Ceutara eta Melillara sartzea zergaren aplikazio lurraldeaz kanpoko lurraldeetatik, baldin eta sarrera horrek praktika libreko tramitazioari bide eman badio, hiri horietan aplikatzekoa denean 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamendua.

d) «Bulego kudeatzailea»: berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia kudeatzeko eskumena duen organoa, Arabako Foru Aldundiaren egitura organikoari buruzko arauei jarraikiz.

e) «Produktu erdilanduak»: eraldatze eragiketa bat edo gehiago direla bide lehengaietatik lortu diren tarteko produktuak, gerora beste eraldatze fase batetik edo batzuetatik pasatu behar direnak ontzi gisa erabiltzeko modukoak izateko.

f) «Hondakin sanitario arriskutsuak»: edukiontzi sanitarioetan utzi behar diren hondakinak, berariazko baldintzak eta araudiak betez kudeatu behar direnak gaixotasunen hedapenari aurrea hartzeko eta herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko.

g) «Zergaren aplikazio lurraldea»: Espainiako lurraldea.

2. Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan agertzen diren kontzeptu eta termino substantiboek dagokienez (arau honetan bertan definitutakoak salbu), zergaren eremu objektiboko produktuei buruzko Europar Batasuneko eta Estatuak araudian xedatzen dena bete beharko da.

6. artikulua. Zerga egitatea

1. Zergapean daude zergaren eremu objektiboko produktuen fabrikazioa, inportazioa eta Europar Batasunaren barruko eskurapena.

2. Zergapean dago, halaber, zergaren eremu objektiboko produktuak modu irregularrean sartzea zergaren aplikazio lurraldera.

Produktuak zergaren aplikazio lurraldera modu irregularrean sartu direla ulertuko da produktuak eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituenak ez badu frogatzen berak fabrikatu edo inportatu dituela edo Europar Batasunaren barruan eskuratu dituela, edo ez badu frogatzen produktuak zergaren aplikazio lurraldean eskuratu direla.

7. artikulua. Zergarik gabeko kasuak

Honako hauek ez daude zergapean:

a) Zergaren eremu objektiboko produktuak fabrikatzea, baldin eta, zerga sortu aurretik, erabiltzeko egokiak izateari utzi badiote edo suntsitu badira, eta, betiere, hori horrela dela frogatu bazaio Zerga Administrazioari, zuzenbidean onargarriak diren frogabideetatik edozein erabiliz.

b) Zergaren eremu objektiboko produktuak fabrikatzea, baldin eta zuzenean zergaren aplikazio lurraldetik kanpoko lurralde batera bidaltzen baditu fabrikatzaileak berak, edo fabrikatzailearen izenean edo haren kontura diharduen hirugarren batek.

Zergarik gabeko kasu hau aplikatu ahal izateko baldintza izango da produktuak zergaren aplikazio lurraldetik benetan atera direla egiaztatzea.

c) Zergaren aplikazio lurraldeko produktuei emango zaizkien pinturak, tintak, lakak eta itsasgarriak fabrikatu, inportatu edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea.

d) Bigarren artikulua 1. apartatuko a) letran aipatzen diren produktuak fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea, baldin eta, salgaiak barruan edukitzeko, babesteko eta manipulatzeko funtzioetarako gai izanik, ez badaude diseinatuta salgai horiekin batera entregatzeko.

8. artikulua. Sortzapena

1. Fabrikazio kasuetan, zerga sortuko da fabrikatzaileak eskuratzaileari lehen aldiz entregatzen edo eskura jartzen dizkionean zergaren eremu objektiboko produktuak zergaren aplikazio lurraldean. Fabrikatutako produktuen izakinak gutxitzen direnean, pentsatuko da, kontrako frogarik ezean, fabrikatzaileak norbaiti entregatu edo eskura jarri dizkiola izakinetatik atera diren produktuak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zerga egitatea gauzatu baino lehenagoko ordainketa aurreratuak egiten badira, prezio osoa edo zati bat kobratzen den unean sortuko da zerga, benetan hartutako zenbatekoengatik.

2. Inportazio kasuetan, aduana legeriarekin bat, inportazio eskubideak sortu behar liratekeen unean sortuko da zerga, inportaziook aipatu inportazio eskubideei lotuta egon ala ez.

3. Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, zergaren eremu objektiboko produktuak eskuratzaileari igortzen edo harenganantz garraiatzen hasi eta hurrengo hilaren 15ean sortuko da zerga, salbu eta eragiketen faktura egun hori baino lehenago igortzen denean, azken kasu horretan faktura igortzen den egunean sortuko baita zerga.

4. Seigarren artikulua 2. apartatuan azaltzen diren kasuetan, zergaren eremu objektiboko produktuak zergaren aplikazio lurraldean modu irregularrean sartzen diren unean sortuko da zerga. Noiz sartu diren jakin ezean, ulertuko da preskribatu gabe dauden likidazio aldietatik aurrenekoan gertatu dela sarrera irregularra, salbu eta zergadunak frogatzen badu beste likidazio aldi batean gertatu dela.

9. artikulua. Salbuespenak

Honako hauek salbuetsita egongo dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, kasua bada:

a) Honako hauek fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea:

1. Bigarren artikulua 1. apartatuko a) letran aipatutako ontziak, honako produktu hauek barruan edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko erabiltzen badira: botikak, osasun produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitalean bularreko haurrei emateko prestakinak edo jatorri sanitarioko hondakin arriskutsuak.

2. Bigarren artikulua 1. apartatuko b) letran aipatzen diren plastikozko produktu erdilanduak, honako produktu hauetarako ontziak egiteko erabiltzen badira: botikak, osasun produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitalean bularreko haurrei emateko prestakinak edo jatorri sanitarioko hondakin arriskutsuak.

3. Berrerabili ezin diren ontziak ixtea, merkaturatzea edo aurkeztea xede duten produktu plastikodunak, ontzi horiek honako hauek barruan edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko erabiltzen badira: botikak, osasun produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitalean bularreko haurrei emateko prestakinak edo jatorri sanitarioko hondakin arriskutsuak.

Salbuespen hori gauzatu ahal izateko, egiaztatu behar da aurreko apartatuetan azaldutako produktuak benetan erabiltzen direla apartatu horietan adierazitako xedeetarako. Hain zuzen ere, zergadunek produktu horiek eskuratzailerik lehen aldiz entregatzen edo eskura jartzen dizkietenean, aurretiazko aitortpen bat eskatu behar da diete, zeinean adierazi behar da baitute produktuok zergaren salbuespenerako eskubidea ematen duten xedeetarako direla. Aitortpen hori Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 65. artikuluan aipatzen diren preskripzio epeak amaitu arte gorde behar da.

b) Bigarren artikulua 1. apartatuko a) letran aipatutako ontziak inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzeko, honako produktu hauek barruan edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko funtzioa betetzen ari direla sartzen badira zergaren aplikazio lurraldean: botikak, osasun produktuak, medikuntzako erabilera berezietarako elikagaiak, ospitalean bularreko haurrei emateko prestakinak edo jatorri sanitarioko hondakin arriskutsuak.

c) Nekazaritzan edo abeltzaintzan bazka landareak edo zerealak siloratzean balak egiteko erabiltzen diren plastiko-bilkariak fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzeko.

d) Zergaren eremu objektiboko produktuak Europar Batasunaren barruan eskuratzeko, baldin eta, zerga egitate horri dagokion zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik, produktuok zuzenean zergaren aplikazioko lurraldetik kanpora bidaltzen baditu Europar Batasunaren barruko eskuratzailerik berak edo haren izenean eta kontura diharduen hirugarren batek.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko baldintza izango da produktuak zergaren aplikazio lurraldetik benetan atera direla egiaztatzea.

e) Zergaren eremu objektiboko produktuak Europar Batasunaren barruan eskuratzeko, baldin eta, zerga egitate horri dagokion zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik, produktuok erabiltzeko egokiak izateari utzi badiote edo suntsitu badira, eta, betiere, hori horrela dela frogatu bazaio Zerga Administrazioari, zuzenbidean onargarriak diren frogabideetatik edozein erabiliz.

f) Bigarren artikulua 1. apartatuko a) letran aipatzen diren ontziak inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzeko, bai ontzi hutsak direnean, bai beste ondasun edo produktu batzuk barruan eduki, babestu, manipulatu, banatu eta aurkezteko funtzioa dutenean, baldin eta inportatutako edo Europar Batasunaren barruan eskuratutako ontzi horiek daukaten plastiko birziklatu gabearen pisua, guztira, hilabetean 5 kilogramotik gorakoa ez bada.

g) Honako hauek fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzeko:

1. Plastikozko produktu erdilanduak, 2. artikulua 1. apartatuko b) letran aipatzen diren horiek, zergaren eremu objektiboko ontziak lortzeko erabiliko ez badira.

2. Berrerabili ezin diren ontziak itxi, merkaturatu edo aurkeztu ahal izateko produktu plastikodunak, erabilera horietarako erabiliko ez badira.

Salbuespen hau gauzatu ahal izateko, produktu horiek benetan zertarako erabiliko diren frogatu behar da. Hain zuzen ere, zergadunek produktu horiek eskuratzaileri lehen aldiz entregatzen edo eskura jartzen dizkietenean, aurretiazko aitorten bat eskatu beharko diete, zeinean adierazi beharko baitute produktuok zertarako erabiliko diren. Aitorten hori Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 65. artikuluan aipatzen diren preskripzio epeak amaitu arte gorde beharko da.

10. artikulua. Zergadunak

Zerga honetan, 6. artikulua 1. apartatua azaltzen diren kasuetan, zergadunak dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak, zergaren eremu objektiboko produktuak fabrikatzen, inportatzen edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen badituzte.

Zergaren eremu objektiboko produktuak zergaren aplikazio lurraldean modu irregularrean sartzen direnean, hau da, 6. artikulua 2. apartatuko kasuetan, produktu horiek eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituen izango da zergaduna.

Euren xedearen zioz salbuespena aplikatu zaien zergapeko produktuen erabileraren edo xedearen justifikazioa dela-eta irregulartasunen bat gertatzen bada, zergadunek ordaindu beharko dituzte zerga eta ezartzen diren zehapenak, harik eta frogatu arte, aurreko artikulua aipatutako aurretiazko aitortena aurkeztuz, produktuak jaso behar dituen eskuratzaileri produktuak jaso dituela. Behin produktuak jaso eta gero, betebeharra eskuratzaileri izango da.

11. artikulua. Zerga oinarria

1. Hau izango da zerga oinarria: zergaren eremu objektiboko produktuek birziklatu gabeko zenbat plastiko daukaten, kilogramotan adierazita.

Zergaren eremu objektiboko produktuei, dagokien zerga sortutakoan, plastikozko beste elementu batzuk gehitzen bazaizkie halako moduan non produktuaren parte bihurtzen baitira, hau izango da zerga oinarria: produktu horiei birziklatu gabeko zenbat plastiko gehitu zaien, kilogramotan adierazita.

2. Plastiko birziklatutzat joko da Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularerako apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikuluko u) letran definitutako materiala, artikuluko bereko bc) letran azaltzen diren balorizazio eragiketen bitartez lortutakoa.

3. Artikulu honen ondorioetarako, zergaren eremu objektiboko produktuek duten plastiko birziklatuaren kopurua ziurtatu beharko da, ziurtagiria emateko akreditaturik dagoen entitate baten bidez, UNE-EN 15343:2008 arauaren babesean («Plastikoak. Plastiko birziklatuak. Plastikoen birziklapenaren trazabilitatea eta adostasunaren ebaluazioa eta birziklatutako edukia»), edo hura ordeztzen duten arauen babesean. Kimikoki birziklatutako plastikoa denean, berariaz akreditatu edo gaitutako entitate batek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da plastiko birziklatuaren kopurua.

Ziurtapen entitateek Egiaztatze Erakunde Nazionalaren (EEN) akreditazioa izan beharko dute, edo Europar Batasuneko beste edozein estatutako egiaztatze organismo nazionalarena, zeina izendatuta egonon baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritakoarekin bat (erregelamendu horren bidez ezartzen dira akreditatzeko eta merkaturatu zaintzeko baldintzak, produktuen merkaturatzearekin lotuta, eta 339/93 (EEE) Erregelamendua indargabetzen da); Europar Batasunetik kanpo fabrikatutako produktuen kasuan, EENrekin nazioarteko aintzatespen akordioa duen beste edozein egiaztatzailearen akreditazioa izan beharko dute.

12. artikulua. Zerga tasa

Zerga tasa 0,45 eurokoa izango da kilogramoko.

13. artikulua. Kuota osoa

Kuota osoa da aurreko artikuluan ezarritako zerga tasa zerga oinarriari aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa.

14. artikulua. Kenkariak

1. Likidazio aldi bakoitzari dagokion autolikidazioan ondoren aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, erregelamenduz ezartzen diren baldintzekin bat, kasua bada, zergaren eremu objektiboko produktuak Europar Batasunaren barruan eskuratzen dituen zergadunak aukera izango du aldi horretan zergarengatik sortutako kuotari honako hauek direla-eta ordaindutako zergaren zenbatekoa kentzeko:

a) Zergadunak berak, edo hirugarren batek haren izenean edo haren kontura, zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali dituen produktuak.

b) Zergaren aplikazio lurraldean eskuratzailari lehen aldiz entregatu edo eskura jarri baino lehen erabiltzeko egokiak izateari utzi dioten edo suntsitu diren produktuak.

c) Eskuratzailari entregatu edo eskura jarri eta gero itzuli diren produktuak, suntsitu daitezzen edo fabrikazio prozesuan berriz sar daitezzen, horien zenbatekoa eskuratzailari atzera ordaindu ondoren.

Apartatu honetan bildutako kenkariak aplikatzeko baldintza izango da, batetik, inguruabar horiek gertatu direla frogatu ahal izatea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Ogasun Zuzendaritzan, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabilita, eta, bestetik, zerga ordaindu dela frogatzea, dagokion ordainagiriaren bidez.

2. Zergaduna zergaren eremu objektiboko produktuen fabrikatzailea denean eta produktu horiek itzultzen direnean, suntsitu edo fabrikazio prozesuan berriro sartu behar direlako, zergadunak, erregelamenduz ezartzen diren baldintzekin bat, kasua bada, inguruabar horiek gertatzen diren aldiko autolikidazioan kendu ahal izango du, aldi horretan zergarengatik sortutako kuotatik, produktu horiengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa, produktu horiek eskuratzailari lehenengoz entregatu edo eskura jarri ostean itzuli direnean, eta, betiere, produktu horien zenbatekoa eskuratzailari atzera ordaindu ondoren.

Kenkari hori aplikatzeko baldintza izango da, batetik, inguruabar horiek gertatu direla frogatu ahal izatea Zerga Administrazioan, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabilita, eta, bestetik, zerga ordaindu dela frogatzea, dagokion ordainagiriaren bidez.

3. Aurreko bi apartatuen arabera bidezkoak diren kenkarien zenbatekoa likidazio aldian sortutako kuoten zenbatekoa baino gehiago bada, gaindikina hurrengo autolikidazioetan konpentsatu ahal izango da, baldin eta gaindikina sortu den likidazio aldia amaitu denetik lau urte igaro ez badira.

4. Kenkarien zenbatekoa urte naturaleko azken likidazio aldian sortutako kuoten zenbatekoa baino gehiago izanez gero, zergadunek eskatu ahal izango dute beren aldeko saldoa itzultzeko likidazio aldi horretako autolikidazioan.

15. artikulua. Itzulketak

1. Honako hauek eskubidea izango dute ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzea eskatzeko, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, kasua bada:

a) Zergaren eremu objektiboko produktuen inportatzaileak, baldin eta produktuok zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali badituzte inportatzaileek eurek nahiz haien izenean edo kontura diharduen hirugarren batek.

b) Zergaren eremu objektiboko produktuen inportatzaileak, baldin eta, zergaren aplikazio lurraldean eskuratzailari lehen aldiz entregatu edo eskura jarri baino lehen, produktu horiek erabiltzeko egokiak izateari utzi badiote edo suntsitu badira.

c) Zergaren eremu objektiboko produktuen inportatzaileak, baldin eta, eskuratzailerari entregatu edo eskura jarri eta gero, produktu horiek itzuli egin badira suntsitu daitezzen edo fabrikazio prozesuan berriz sar daitezzen, horien zenbatekoa eskuratzailerari atzera ordaindu ondoren.

d) Zergaren eremu objektiboko produktuen eskuratzailerak, baldin eta, zergadun ez izanik, produktu horiek zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali direla frogatzen badute.

e) Zergaren eremu objektiboko produktuen eskuratzailerak, baldin eta, zergadun ez izanik, frogatzen badute produktu horien xedea honako hau dela: botiken, osasun produktuen, erabilera mediko berezietarako elikagaien, ospitalean bularreko haurrei emateko prestakinen edo jatorri sanitarioko hondakin arriskutsuen ontziak izatea, edo erabilera horietarako ontziak lortzea, edo botiketarako, osasun produktuetarako, erabilera mediko berezietarako elikagaietarako, ospitalean bularreko haurrei emateko prestakinetarako edo jatorri sanitarioko hondakin arriskutsuetarako ontziak ixtea, merkaturatzea edo aurkeztea ahalbidetzea.

f) Zergaren eremu objektiboaren barruan dauden eta berrerabilgarriak ez izateko sortu, diseinatu eta merkaturatutako produktuak izateagatik zergari atxikita dauden produktuen eskuratzailerak, baldin eta frogatzen badute, hala badagokio, haietan aldaketaren bat egin ondoren berrerabil daitezkeela.

g) Honako hauen eskuratzailerak:

1. Plastikozko produktu erdilanduak, 2. artikulua 1. apartatuko b) letran aipatzen diren horiek, zergaren eremu objektiboko ontziak lortzeko erabiliko ez badira.

2. Berrerabili ezin diren ontziak itxi, merkaturatu edo aurkeztu ahal izateko produktu plastikodunak, erabilera horietarako erabiliko ez badira.

2. Aurreko apartatuan bildutako itzulketak gauzatu ahal izateko baldintza izango da, batetik, apartatu horietan azaldutako inguruabarrak gertatu direla frogatu ahal izatea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Ogasun Zuzendaritzan, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabilita, eta, bestetik, zerga ordaindu dela frogatzea.

3. Arabako Foru Aldundiak egingo ditu bidezkoak diren itzulketak, itzuli beharreko kuoten diru sarrera berari egin bazaio. Dena dela, ezin baldin bada jakin kuotak zein zerga administrazioan sartu ziren, itzultzeko eskubidea duenaren lurraldeko zerga administrazioak itzuli beharko ditu.

16. artikulua. Kudeaketa arau orokorrak

1. Fabrikazioaren edo Europar Batasunaren barruko eskurapenaren kasuetan, zergadunen betebeharra izango da autolikidazioa egitea eta zerga zorraren zenbatekoa sartzea.

Likidazio aldia hiruhileko naturala izango da. Salbuespena: eragiketen bolumena dela-eta edo balio erantsiaren gaineko zergaren araudian ezarritako inguruabarren batengatik zerga horren likidazio aldia hilabetekoa bada, honako zerga honen likidazio aldia ere hilabetekoa izango da.

Inportazioetan, aduanetako araudiak xedatutakoari jarraituz zerga aduanetako zorra likidatzen den eran likidatuko da honako zerga hau ere.

2. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ezarriko ditu bidea, ereduak, epeak, betekizunak eta baldintzak aurreko zenbakian aipatutako likidazioak aurkezteko eta, kasua bada, zergaren itzulketak eskatzeko.

3. Seigarren artikulua 1. apartatuan adierazitako jarduerak egiten dituzten zergadunak, salbu eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularraren foru agindu bidez zehazten direnak, jarduerari ekin aurretik, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren Lurralde Erregistroan inskribatu beharko dira.

Zerga honi atxikitako zergapekoen errolda eta haiek Lurralde Erregistroan inskribatzeko prozedura Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularraren foru agindu bidez arautuko dira.

4. Beste arau batzuetan ezarritako kontabilitateko betebeharrak ezertan ukatu gabe, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularraren foru agindu bidez adierazten diren fabrikatzaileek zergaren eremu objektiboko produktuen kontabilitatea eraman beharko dute, baita produktu horiek lortzeko behar diren lehengaiena ere, kasua bada. Kontabilitatea eramateko betebeharra betetzeko euskarri informatikoko kontabilitate sistema bat erabiliko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, eta elektronikoki hornituko dira kontabilitateko idazpenak, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ezartzen dituen prozedurari eta epeei loturik.

5. Zergaren eremu objektiboko produktuen Europar Batasunaren barruko eskurapenak egiten dituzten zergadunek, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularraren foru agindu bidez zehazten direnek izan ezik, izakinen erregistro liburu bat izango dute, eta bulego kudeatzaileari aurkeztu beharko diote, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ezartzen duen prozedurarekin bat eta zehazten dituen epeetan.

6. Zergaren eremu objektiboko produktuen inportazioetan adierazi beharko da inportatutako plastiko birziklatu gabearen kopurua, kilogramotan, eta ea aplikatu ahal zaion 9. artikuluko f) letran araututako salbuespena. Datu horiek aduanako inportazio-adierazpenaren atal egokian jarri beharko dira.

7. Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten zergadunek pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute Zerga Administrazioaren aurrean ordezkaria dituzan, zerga honengatik dituzten betebeharrak dagokienez, eta izendapen hori egin beharko dute zerga honen zerga egitatea den lehen eragiketa egin aurretik.

Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten zergadunak ordezkatzeko dituen pertsona fisiko edo juridikoa beharturik egongo da Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren Lurralde Erregistroan inskribatzera, zerga honen zerga egitatea den lehen eragiketa egin aurretik.

8. Zergaren aplikazio lurraldean zergaren xedeko produktuak saldu edo entregatzen direnean, honako betebeharrak hauek izango dira:

a) Produktua fabrikatu ostean zergaren lurralde eremuan egiten den lehenengo salmenta edo entregan, fabrikatzaileek eskuratzailari jasanarazi beharko diote salmenta edo entrega hori egitean sortu den zergaren kuoten zenbatekoa. Egiten duten fakturan honako hauek adierazi beharko dituzte bereiz:

1. Sortutako kuoten zenbatekoa.

2. Birziklatu gabeko zenbat plastiko dagoen produktuetan, kilogramotan adierazita.

3. Salbuespen kasuren bat aplikatzeko den; zehaztu beharko da salmenta edo entrega zein artikuluri jarraikiz salbuesten den.

b) Gainerako kasuetan, zergaren xedeko produktuak saldu edo entregatzen dituztenek ziurtagiri batean edo salmenta eta entrega horien ondorioz egiten dituzten fakturretan adierazi beharko dituzte, eskuratzailak aurrez eskaturik, honako hauek:

1. Produktu horiengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa, edo salbuespen kasuren bat aplikatu den; halakoetan, zehaztu beharko da onura fiskal hori zein artikuluri jarraikiz aplikatu den.

2. Birziklatu gabeko zenbat plastiko dagoen produktuetan, kilogramotan adierazita.

Letra honetan ezarritakoa ez da aplikatzeko izango faktura erraztuak egiten direnean Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren 7. artikulua 1. apartatuan aipatzen den edukiarekin (dekretu horrek fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onetsi zuen).

17. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

1. Artikulu honetan aurreikusitako xedapen bereziak ezertan galarazi gabe, zerga honi dagozkion arau hausteak Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

2. Zergen arloko arau hausteak izango dira:

a) Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren Lurralde Erregistroan ez inskribatzea.

b) Lurraldean establezimendurik ez duten zergadunek ordezkariarik ez izendatzea.

c) Behar bezalako akreditazioa duen entitateak ziurtapen faltsua edo okerra egitea zergaren eremu objektiboko produktuetan dagoen plastiko birziklatuaren kopuruaren gainean, kilogramotan adierazia.

d) Zergaren eremu objektiboko produktuen eskurtazaileek bidegabe hartzea 9. artikuluko a) eta g) letretako salbuespenen onura, produktuen benetako erabilera ez delako letra horietan adierazitakoa.

e) Fakturan edo ziurtagirian oker jartzea 16. artikuluan 8. apartatuan aipatzen diren datuak.

3. Artikulu honetako 2. apartatuko arau hausteak honako arau hauei jarraikiz zehatuko dira:

a) Aurreko apartatuko a) eta b) letretako arau hausteei diruzko isun finkoa ezarriko zaie, 1.000 eurokoa.

b) Aurreko apartatuko c) letrako arau hausteari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, bildu gabe geratuko lirartekeen zerga kuoten zenbatekoaren ehuneko 50ekoa, eta 1.000 eurokoa gutxienez.

Tributu arloko arau hausteak errepikatzen badira, b) letra honetan adierazitakoaren arabera dagokien zehapena ehuneko 25 handituko da. Errepikatzen direla joko da araua hausten duenak jokabide baten ondorioz zehapena jasotzen badu, ebazpen irmo bidez, administrazio bidean, eta ondoko bi urtean berriro hausten badu araua, jokabide berberagatik.

c) Aurreko apartatuko d) letrako arau hausteari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, bidegabe hartutako zerga onuraren ehuneko 150ekoa, eta 1.000 eurokoa gutxienez.

d) Aurreko apartatuko e) letrako arau hausteari diruzko isun finkoa ezarriko zaio, 75 eurokoa, 16. artikuluan 8. apartatuan aipatzen diren datuak oker adierazita egindako faktura edo ziurtagiri bakoitzeko.

4. Aurreko apartatuan bildutako kasuetan Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean 192. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Zergaren eremu objektiboko produktuetan dagoen plastiko birziklatuaren kopuruaren gaineko egiaztapena.

Zergaren aplikazioaren osteko lehenengo 12 hilabeteetan, zerga premiazko araugintzako dekretu honen 11. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoaren ordezkari, fabrikatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuta ahal izango da zergaren eremu objektiboko produktuek duten plastiko birziklatu gabearen kopurua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Ekonomia Itunaren hamaikagarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Bigarrena. Beste xedapen batzuen indarra

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jarri eta gero indarrean jarraituko du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren apirilaren 18ko 254/2023 Foru Aginduak, honako eredu hauek onesten dituenak: 592 "Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga berezia. Autolikidazioa"; A22 "Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga berezia. Itzulketa eskaera"; 592C "Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga berezia. Izakinen kontabilitatea"; eta 592R "Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga berezia. Izakinen erregistro liburua"; horrez gainera, eredu horiek aurkezteko modua eta prozedura ezartzen ditu, eta arautzen du nola inskribatu behar diren lurralde erregistroan, nola arteztu behar den kontabilitatea eta nola aurkeztu behar den izakinen erregistro liburua.

Hirugarrena. Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, berretsi edo baliogabetu dezaten, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasuneko zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA